

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuak funtzionatzeko eta aurrera eraman ahal izateko, hainbat jarduera egin behar dira. Horrela, bezeroekiko harremanak mantendu eta diru sarrerek lotuko ditugu. Hala, lehentasun gehiena dituzten jarduerak gu saiatuko gara garatzen, azkenean kanpoko enpresa batzuei laguntza gehiena eskatzen badiogu nahiko garestia ateratzeko probabilitatea izango dugulako. Beraz, lehen esan dugun bezala edukiontzia gure kontutik egingo dugu. Izan ere, enpresen laguntzarekin (materialarekin adib.) kontaktuko dugu. Hori dela eta, funtsezkoa jardueretariko bat bezala edukiko dugu, ingurumeneko arazoak, kutsadura esate baterako, material berrerabiliak (plastikoa) erabiltzea arazo horiek murrizteko.

Beraz, hasieran diseinuaren makina pentsatuko dugu eta behin hori bukatuta enpresa batzuekin kontaktuan jarriko gara beharrezko materiala eskuratzeko. Jarraian gure fabrika ekoiztuko dugu, bakoitzak zeregin bat edukiz.

Jarduera bat izango dugu, MALE enpresak, produktua saltzea eta bezeroei bidaltzea izango dena. Internetetik salduko dugunez, produktua bezeroari iristeko egun batzuk itxaron beharko dira. Bezeroak produktua erosi eta gero, aplikazioan bere produktua erosi den unetik bezeroarengana iristen den unerako prozesua ikusi dezake, hau da, produktua non dagoen jakingo du; stockan, banatzailearen eskuetan dagoen...Gainera, guk ez dugu denda fisikorik izango hau da, denda espezifikoko batzuei gure produktua salduko diegu edo erakunde publikoei modu horretara erraztasunez erosteko lehen esan bezala.